




TECHNOLOGY, THE END OF OUR FREEDOM?

Egileak: Maren Agirre Diaz De Espada, Paula Amundarain
Fernández, Garazi Méndez Basabe, Elena Urteaga Fernández


AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
LABURPENA	3
ABSTRACT	3
HIPOTESIA	3
MARKO TEORIKOA	4
TEKNOLOGIA ETA GIZAKIAREN ARTEKO HARTUEMANA	4
EGUNGO EGOERA	5
TEKNOLOGIA ETA ARAZO ETIKO KASU BATZUEN AZTERKETA	5
KONTROLA	6
TEKNOLOGIAK ESKEINTZEN DUEN ASKATASUN ADIERAZPENA	6
EGOERAREN TALDE HAUSNARKETA	7
METODOLOGIA	8
ONDORIOAK	9
ONDORIO OROKORRA	13
BIBLIOGRAFIA	14
ERANSKINAK	15
Marko teorikoa garatzeko definitutako esparruak:	15
Ikerketan erabili den inkesta eredua:	16
ESKERRAK	16

LABURPENA

Teknologiak urteen poderioz jasan duen bilakaera oso esanguratsua izan da, eta hainbat esparrutan eragin zuzena izan duela esan dezakegu. Gizartea izan da denetan kaltetuena, gure ustez, pixkanaka-pixkanaka gizakion askatasuna kaiola baten barnean giltzapetuta gelditu baita. Baina zein da askatasunaren amaiera? Bada, teknologiak gizakion kontrol absolutua eduki eta gure jokabide, pentsaera eta sentimendu oro teknologiaren mende egongo den unea.

Egoera honek eta transhumanismorako aurrerapausuek eragin latzak izango dituztela espekulatzeraz bultzatzen gaitu. Teknologia gure garunaz jabetuko da? Gizartearen suntsipena eragingo du? Munduko bazter guztiak ukatuko dituen arazo bat izango da? Galdera hauek abiapuntutzat hartuta eramango dugu aurrera gure ikerketa proiektua, betiere argi izanik ezinezkoa dela gaur egun, hauen erantzuna ezagutzea.




ABSTRACT

The development of technology over the years has been very significant, and we can say that it has had a direct influence on many areas. Society has been the most damaged of all, we believe that human freedom has gradually been confined to a cage. But which is the end of freedom? There is a time when technology has absolute human control, and all our conduct, thought, and feeling will depend on technology.

This situation leads us to speculate that advances towards Transhumanism will have several implications. Will technology take over our brains? Will it cause the destruction of society? Will it be an issue that will deny every corner of the world? From these questions we shall proceed with our draft inquiry, which is always clear that it is impossible to know the answer nowadays.

HIPOTESIA

Gure hipotesia zera da: gizarteak teknologiaren aurrerakuntzei buruzko gure iritzia bera izango duela. Hau da, berrikuntza teknologikoek arazo etiko eta sozialak sortuko dituztela munduan, aurrerakuntza hauekin kontrolatu egingo gaituztelako.



MARKO TEORIKOA

TEKNOLOGIA ETA GIZAKIAREN ARTEKO HARTUEMANA

Espezie batek modu sistematiko eta arrazionalen behar edo arazo praktikoei erantzuteko ebazpen teknikoak deskribatu, azaldu, diseinatu eta aplikatzea ahalbidetzen duen zientifikoki antolatutako jakintza-multzoari deritzo teknologia.

Ezin dugu gizakiaren jarduna ulertu honek ingurunera moldatzeko duen gaitasunik gabe, hori baita finean aurrerabidea ziurta dezakeen ibilbide bakarra.

Dena den, azken mendeetako ezagutza zientifikoak eta honen isla den teknologiarenak, inflexio puntu bat bizi izan dutela baieztatu daiteke, abiadura moteletik supersonikora pasaz. Prozesu hau hasi zen garaian aurreikusi ezin genituen ondorioak sortu dira edo sortzeko bidean daude.

Cristina Saurak gure ustea ezinhobeto laburtzen du: “Teknologia etengabe eboluzionatzen ari den mugarria da. Zereginak errazten dizkigula eta gure bizi kalitatea hobetzen duela errealitate eztaba daezina da. Gainera, ezagutza eta trebetasun berriak eskuratu behar ditugu honen garapenak ezarritako erritmoari jarraitzeko. Eguneroko errutinaren prozesurik sinpleenak ere aldatu egiten dira horren ondorioz. Baina honetara egokitzen ari garen bitartean, alde batera uzten ari gara geure burua. Gu geu, geure gorputz, buru eta arimarekin. Hausnartzekoa da: teknologiaren aurrerapenak zenbateraino eragiten digu gizakioi? Ez ahal da askotan aho biko arma? Ez al da egia teknologiak elkarrengandik urruntzen gaituela? Ez gara konturatzen gizarte-isolamendua eragin eta itzuliko ez diren gure bizitzako une asko gal ditzakegula.” [...]

“Gizartea, oro har, teknologiaren menpeko bihurtu da, eta konformismoan erori gara, teknologiak arazo guztiak konponduko dizkigula pentsatuz. Baina ez da gai gosea, gerrak, miseria, indarkeria... eta funtsezkoak diren beste hainbeste alderdi konpontzeko. Zertarako balio du, orduan, aurrerapen teknologiko guztiak, gero eta jende gehiago sufritzen ari bada? Gure bizitza dastatu behar dugu minutuz minutu, eta gure kontzientzia berreskuratu. Jar dezagun arreta gizaki gisa dugun garapenean eta landu ditzagun gure adimenaren ahalmenak. Izan ere, kontzientzia hartzen badugu eta behatzen hasten bagara, gure ekintza eta pentsamenduen lekuko bihurtzen, dimentsio existentzial berri batera igaro gaitzke eta benetan aske izan (Saura, 2021).”

EGUNGO EGOERA

Gaur egun bizi dugun iraultza digitalak gero eta nabarmenago definitzen du gure etorkizuna. Teknologia, gutxinaka gutxinaka biztanleen kontrola lortzen ari da. Gaur egun, Interneten erabilerak sortzen dituen datuak eta gure kontsumoa bideratzeko diskriminatzen eta antolatzen dituzten algoritmo matematikoen teknikak, gizateriari ezartzen zizkion kontrol moduak dira.

XX. mendean izandako teknologiarekiko menpekotasuna eta gehienbat informazioaren aurrerapausoak adierazten ditu, informazioaren eta teknologiaren "sozializazio eta globalizazioari" buruz hitz egiten (Plaza, 2004). Ikerkuntza teknologiko hauek eta beronen hedapen azkarrak, zeinak aldi berean eztabaidatzeko, ikertzeko eta teknologia gehiago sortzeko garatu dira. Giza bizitzako arlo guztietarako tresna berriak sortzeko balio dute, mundu globalizatu bat sortuz.

Honen ondorioz, herrialde txiro eta aberatsen arteko ezberdintasun handiak daudela argi ikus dezakegu, gure mugak tresna teknologikoek garatzean duten geldi ezinezko erritmoarekin, herrialde pobreei sortu dugun globalizatutako gizartera iristeko arazoak sortzen. Aurrerapausu handi hauen ondorioz teknologiarekiko dugun jakinduria areagotu behar dugu, informazioa ulertzeko eta antolatzeko. Horrenbestez etorkizunean hau izango da agian gizakioi dagokigun papera.

TEKNOLOGIA ETA ARAZO ETIKO KASU BATZUEN AZTERKETA

Teknologiak gizateriari eragiten diola ez dago zalantzarik, gure eguneroko bizitzan zati handi batek jokatzeko du teknologia informatikoaren eta aro digitalaren etorrerarekin. Egin ditzakegun gauza batzuk sinestezinak dira, eta mirari horiek sortzen dituen zientzia gure ulermen-gaitasun gehienetatik haratago doa. Hala ere, badu beste alde bat, agian gutako askok dakiguna baino sakonago doana.

Teknologia modernoaren alderdi bat Thornillen (2017) ustez, pribatutasun pertsonala higitu duela da. Online egotean, gure bizitzak informazio-bankuak dira, gure egungo kokapena ere erregistratuta dago, erraz eskuratzeko eta arakatzeko modukoa da. Izan ere, gure bizitzak, gu bezalako beste gizabanako batzuei ez ezik, ezagutzen eta aurkitzen ez dugun pertsona inpertsonal bati ere ematen zaizkio. Pertsona pribatuak izateko askatasuna galduta, jakinaren gainean egon ala ez, geure buruaren bertsio bat igortzen dugu mundu digitalean, benetan zergatik edo nor den entzuleria jakin gabe.

Teknologiak berehala komunikatzeko eta plataforma ugari bidez emititzeko gaitasuna izatea gure burmuinek funtzionatzeko duten modua aldatzera bideratuta dago, eta kultura gero eta nartzisistagoa sorrarazi du. Plataforma horietara etengabe

sartzeak pertsonak harrapatu ditu beren izaeran eragin negatiboa izan dezaketen portaeretara eraman ditzaketen ohituretan.

Erabiltzen dugun teknologiak gure kontzientzien hedapen bat izan beharko luke, eta gure aukerak maximizatzeko erabili beharko genuke, ez murrizteko. Teknologia jakin batzuk berehala eskura izateak zail egiten du hori, baina guk askatasuna dugu gure bizitzetan jokatu duen rola atzera egiteko, ebaluatzeko eta berriz ebaluatzeko, eta rol eraikitzailea dela ziurtatu beharko genuke.

KONTROLA

Egoera honek, gizartea teknologiaren barruan harrapatuta gelditzea eragiten du. Aldaketa honek, gizakiaren gorputzak eta haien muga fisikoak aldatuz, algoritmoen eran programatu daitezken gizakiak sortu ditu. “Aldaketa horrek utopia berri bat sustatzen du, gizakiak beren gorputzez eta muga fisikoez jabetzean haien izaera eraldatzen duena, algoritmikoki programagarriak diren posthumanoak bihurtzeko, hau da, beren ainguratze organikoa ezabatzean transzendentalki teknologikoak diren eta hilezkorak izan daitezkeen izakiak.” (Lasalle,2019). Hauek ez dute izaten kritikatzeko ahalmenik prozesu honen ondoren.

Aldaketa hauek eta beste batzuen ondorioz, diktadura teknologiko bat sortzen ari da. Honek geroz eta botere gehiago hartzen du eta indarrez hazten da. Diktadura teknologiko honek, inteligentzia artifizialaren, algoritmoen, robotikaren eta datuen garapena bultzatzen du. Gure zibilizazio demokratiko eta liberalaren kolapsoaren ondorioa da. Giza esperientziaren digitalizazio masiboa, banakakoa zein taldekoa, mundu osora iristen ari den hondamendi progresibo eta ebolutibo baten itxura hartzen hasi da. Teknologia, behar ezinbesteko bat bihurtzen ari da eta gaur egun inor ez litzateke izango gai hau gabe bizi ahal izateko. Aurrerapen honek ez du indarkeriarik ez indarrik behar nagusitzeko, ezta legitimitate-kontakizunik ere erabilera justifikatzeko.

TEKNOLOGIAK ESKEINTZEN DUEN ASKATASUN ADIERAZPENA

Pérez Arizaren (2006) lanean askatasun adierazpenaren erabilerak eta perspektibak aztertzen ditu teknologiaren eta informazio gizartearen aldetik. “La libertad de expresión en España” liburuan oinarrituz askatasun indibiduala eta adierazpen askatasuna zer den identifikatzen ditu, ikerketa guztirako oinarri bat eraikitzen.

Komunikazioaren teknologiak gero eta gehiago erabiltzen ari gara, batez ere informazio-prozesuetan. Hauek nola egituratzen diren ikertzen du, zein egoera berri honetan, komunikabideak gero eta gehiago ez datozela bat eta egitura handien parte direla baieztatzen. Hauek gaur egun, gehienetan bankuen korporazioak dira eta horren ondorioz transmititzen zaigun informazioaren askatasun kalitatea egiaztatzeko asmoarekin, hauek eskaintzen diguten askatasuna ikertzen du.

EGOERAREN TALDE HAUSNARKETA

Askatasuna hitza entzutean hamaika gauza datorkigu burura: erabakiak, borondatea, determinismoa... Hain da potoloa honen esanahia... Jarduera jakin bat egiteko ala ez egiteko gizakiak duen ahalmen gisa definitu ohi da, baina, esaldi ziztrin batean laburbil daitekeen arren, kontzeptu anbigua eta izaera aldakorrekoa da. Pentsa honen presentzia baldintzatzen duten faktoreak zerrendatu nahi bagenu, zeregin amaigabea litzateke.

Egun, gogoz nabari dezakegun teknologiaren bilakaera da alderdiotako bat, zuzen-zuzenean atxiki zaiguna noski. Teknologiaz inguratuta bizi gara, eta honekiko dugun dependentzia geroz eta sendoagoa da. Hain barneratuta daukagu, ez garela ohartu ere egiten zeharo menperatuta gaituela.

Horregatik, nahiz eta batek baina gehiagok pentsa teknologiak kontrol maila eta garrantzi gaindiezina lortu duela dagoeneko, hasiera hutsa besterik ez dela deritzogu guk. Nork berrets diezaguke gaur egun sare sozialek adibidez, guregan duten kontrola etorkizunean gure garunean ezarritako mikrotxipa bihurtuko ez denik? Ezinezkoa da, gure arbasoei etorriko zenaz inork abisatu ez zien bezalaxe.

Egoerak, jendea bere askatasuna teknologiak betiko zapuztuko duelakoan dagoela pentsatzera bultzatzen gaitu. Beldurrak mehatxatzen ditu, eta horregatik ez dira fio aurrerapen teknologikoek ekarriko dietenaz. Hau da hain zuzen ere “Frankensteinen Sindromea” izenpean ezagutzen den fenomenoak islatzen duena, zeinarekin erabat ados gauden.

Esandakoak esanda, ondoriozta dezakegu, teknologiak areagotzen jarraituko duela urteak pasa ahala, eta honek gizakion askatasunaren mugak ezarriko dituela. Hala ere, auzi honen erantzuna aurkitzeko egin dezakegun bakarra, denborak gure zalantza argitzen uztea da.

METODOLOGIA

PROZEDURA:

Gure hipotesia ukatzeko edo baieztatzeko, azterketa bat egingo dugu; bertan, gure hipotesiaren arrakasta frogatuko duten alderdiei erreparatu, ondorioak aterako ditugu. Lehenik eta behin, galderak sortzeko hainbat adituen artikuluetan murgilduko gara beraien jakinduria gure lanean aplikatzeko. Artikulu horietan, teknologiaren aurrerakuntzen berri emateaz gain, beraien ustetan etorkizunean izango dituzten eraginak azalduko dizkigute. Bigarrenik, kaleko jendeaz baliatuko gara gure lana aberasteko, horretarako inkesta bat prestatuko dugu. Pertsona hauei haien egoeraren ikuspegiaz bai gaur egun bai etorkizunean galdetuko diegu.

DISEINUA:

Alde batetik, galdetegia hiru ataletan banatu dugu. Lehenengoa, bakoitzaren datu pertsonalak betetzeko atala da, gure galdetegia adin guztietako biztanleriari bideratuta dagoenez, ondo datorkigu haiei buruzko datuak jakitea. Bigarrenen, teknologiaren dependentzian zentratu gara, bakoitzak teknologiarekiko duen menpekotasuna jakiteko galderak planteatu ditugu. Azkenik, hirugarrenean, bakoitzaren iritzi pertsonala ezagutu nahi genuke, haien ikuspuntua ezagutu eta gure hipotesiarekin bat datozen jakiteko.


Gure ikerketa aurrera eramateko, galdetegia gmail bidez helaraziko dugu, baita kaleko jendeari galdetu ere. Familia, lagun, ikasle eta irakasleak izango dira gure inkestaren hartzaileak. Galderak Urretxu-Zumarragako kaleetan zehar burutuko ditugu aste bateko epean. Era berean, gmaileko imprimakia aste beteko denboran bete beharko da.

ONDORIOAK

Inkesta herritarren artean zabaldu ondoren, jasotako erantzunak aztertu ditugu eta hainbat ondoriotara iritsi gara. Lehenik eta behin, aipatzekoa da gure inkesta bete duten pertsonen artean, gehiengoak 16 eta 25 urte bitarte dituela. Datu hau oso nabarmena iruditu zaigu, erabat islatzen duelako nerabeak direla gehienbat teknologien menpe daudenak. Gainera, esan beharra dago, erantzun hauek beraien artean oso antzekoak direla, batez ere, teknologiaren atalean.


Gure galderetako batek teknologiarekin lotutako menpekotasunari buruz dihardu. Lortu ditugun erantzunak 16-25 urte bitartekoen artean, nahiko harrigarriak dira, grafikoan ikus dezakegun bezalaxe. Denek beraien teknologiarekiko menpekotasuna baloratzerako garaian 5etik gorako puntuazioa hautatzen dute, gehiengoak 8ko menpekotasuna duela baieztatzen duelarik. Erantzun hauekin argi eta garbi ikus dezakegu, teknologiaren presentzia oso handia dela nerabeen artean. Gainera, etorkizunera begira teknologiak gazte nahiz helduen artean menpekotasuna izaten jarraituko duela ikus dezakegu. Baita areagotuko dela ondorioztatzera ere eramaten gaitu.

Teknologiaren menpekotasuna duzula uste duzu?




Menpekotasunaren harira, inkesta bete dutenei, egunean teknologia kontsumitzen igarotzen duten denboraren inguruan ere galdetu diegu. Aurreko galdera nahiko abstraktua zenez, zehaztasun gehiagoko emaitzak ematen zizkiguten erantzunak behar genituen. Horregatik, galdera hau egiteak eta honen erantzunak jasotzeak, menpekotasuna gazteen artean oso nabaria dela baieztatzen lagundu digu. Izan ere, nerabe guztiek 3 orduetik gora kontsumitzen dute teknologia egunero, gehiengoak 3-4 ordu bitartean (36,7%)

Teknologiarekin igarotako denbora (16-25 urte bitartekoak)




Teknologiari lotutako menpekotasunaz gain, beraien aburuz zenbaterainoko askatasuna duten teknologiari dagokionez ere galdetu dugu. Bertan ikus daiteke, hiru kopuru direla adierazgarrienak. Iritzi nabarmenena erdigunekoa da. Hala ere, hurrengo bi gailenduenetan kontraesanak aurki ditzakegu: batzuk beren askatasuna eskuragarri ikusten duten bitartean, beste batzuk ezinezkoa ikusten dute gaur egun teknologiarekiko aske izatea.

ASKATASUNA (16-25 urte bitartekoak)



Azkenik, gure hipotesiarekin erabat lotuta dauden hainbat galdera egin dizkiegu. Alde batetik, etorkizunari begira ea teknologiak garapena emango duen eta garapen horren ondorioei buruz galdetu diegu. Grafikoan ikus daitekeen bezala, ondoriozta dezakegu denen ustez garapena egongo dela eta garapen horrek gizarteari eragingo diola. Hala ere, gure hipotesiarekin eragin zuzena duen galderan, hau da, azkeneko galderan, espero ez genituen erantzun batzuk topatu ditugu. Erantzunei erreparatu ondoren, batek baino gehiagok garapen hau positiboa izango dela pentsatzen duela ikusi dugu. Nahiz eta beste batzuk guk bezala pentsatu.


Etorkizunari begira teknologiaren garapena emango dela uste duzu?



Uste duzu garapen honek gizarteari eragingo diola?




Zenbateraino izango dira garapen hauek positiboak



Bestetik, beraien ustez teknologiak etorkizunean ongizatea bermatuko duela behatu dugu. Grafikoan ikus daitekeen bezala, nahiko parekatuta dago, baina baiezkoak 54,3%-arekin irabazten du. Hala ere, hain parekatuta egoteak, askok etorkizuneko aurrerakuntza teknologikoengan konfidantza ez dutela adierazten du, gehiengoak konfidantza osoa duen arren.

Teknologiak gizartearen ongizatea bermatuko duela uste duzu?



ONDORIO OROKORRA

Hasiera batean planteatutako hipotesiari erreparatuz eta ondorioak atera eta gero, guretzat hain nabaria zen ideiarekin jendea guztiz bat ez datorrela ikusi dugu. Hau da, teknologiak arazo etikoak ekartzearen baieztapenarekin bat datorren jendea azaldu arraren, badaude esparru guztietan ongizatea bermatuko duelaren ideia dutenak. Beraz, ezin dezakegu esan ez zuzen genbilenik, ezta bide okerra aukeratu genuenik. Etorkizuna da gure lanaren erantzuna zehaztuko duena.

Ikerketa hau egin ondoren aipatu behar dugu, horrelako beste lan bat egin beharko bagenu hainbat aspektutan hobetu beharko genukeela uste dugula. Besteak beste, adin desberdinetako pertsona gehiagori galdetzea ez legokeela gaizki eta egindako galderetan objektuagoak izan beharko genukeela.



BIBLIOGRAFIA

¹Lassalle, J.M. (2019). *Emerge el rostro de una dictadura tecnológica*. elpais.com. 2022/01/27an begiratua.

https://elpais.com/elpais/2019/05/07/ideas/1557243596_806678.html

Laburpena:

Gaur egun, Internetek sortzen dituen datuak eta gure kontsumorako diskriminatzen eta antolatzen dituzten algoritmo teknika matematikoak, gizateriari ezartzen dion kontrol eta menderatze binomioak azaltzen ditu.

² Perez, Carlos. (2006). *La libertad de expresión, en el paradigma de las nuevas tecnologías y la sociedad de la información*. Revista Latina de Comunicación Social. redalyc.org. 2022/01/27an begiratua.

<https://www.redalyc.org/pdf/819/81996111.pdf>

Laburpena: Lan honek adierazpen- askatasunaren erabilera eta perspektibak aztertzen ditu, komunikazio teknologikoaren erabilera, batez ere informazio-prozesuetan. Hala ber, informazioa gizartean nola egituratzen den eta askatasun horren kalitatea egiaztatze asmoarekin ikerketa bat egiten du.

³ Plaza, Gotzon. (2004). *Informazio eta komunikazio teknologien gizarte-inplikazioak*. euskonews.eus. 2022/01/27an begiratua.

<https://www.euskonews.eus/0253zbnk/gaia25301eu.html>

Laburpena: XX. mendea informazio eta komunikazio teknologiaren mendea izan dela esan daiteke, ondorioz gizartean izan dituzten eragin eta ondorioa sozialalk egon dira, gure bizitzan aldaketa bat suposatu dutela hain zuzen ere.

⁴ Saura, Cristina. (2021). *El mundo está cambiando: evolución tecnológica versus involución del hombre*. rhsaludable.com. 18/02/2022an begiratua.

<https://rhsaludable.com/el-mundo-esta-cambiando-evolucion-tecnologica-versus-involucion-del-hombre/>

Laburpena: Teknologia oso baliagarria suertatzen zaigun arren, zoritxarrez bere menpeko bihurtu gara. Baina honek ez du munduko arazo guztiak konpontzeko gaitasuna, eta horregatik gure kontzientzia berreskuratu behar dugula ondorioztatu dugu.

⁵ Thornhill, Ben. (2017). *Tecnología y Libertad*. psyciencia.com. 2022/01/27an begiratua.

<https://www.psyciencia.com/tecnologia-y-libertad/>

Laburpena: Hauxe da teknologia gure mundu psikologikoan duen eragina ebaluatuko duten bi artikuluetako lehena. Lehenengo zatiak gure askatasunean duen eragina eztabaidatuko du, eta bigarrenak sormena izango du ardatz.

ERANSKINAK

Marko teorikoa garatzeko definitutako esparruak:

Marko teorikoa ikerketa-, azterketa-, hipotesi- edo esperimentu-proiektu baten oinarri diren aurrekariak, aurretiazko ikerketak eta gogoeta teorikoak biltzea da. Oro har, informazioaren bidez elikatuko da ikerketaren hasiera, egin nahi dugunari forma emateko. Horri esker lortzen da, besteak beste:

- Kontzeptuen definizioa eta erabileraren zehaztapena
- Hipotesien planteamendua egokitzea eta haien emaitzak
- Konklusioak modu koherentean planteatzea, teoriak baieztatzen duenarekin bat.

Esparru teorikoaren ezaugarria ere bada, halaber, aukeratutako aztergaiaren diziplina, kontzeptu garrantzitsuak eta sakondu nahi den edo ikasi nahi den fenomenoaren definitzea. Marko teorikoaren garapena ezinbestekoa da gradu, master amaierako lanetan, doktorego tesietan nahiz artikulu zientifikoetan.

- **Teknologia:** Espezie batek modu sistematiko eta arrazionalen behar edo arazo praktikoei erantzuteko ebazpen teknikoak deskribatu, azaldu, diseinatu eta aplikatzea ahalbidetzen duen zientifikoki antolatutako jakintza-multzoari deritzo teknologia
- **Kontrola:** Kontrola zerbait edo norbait menderatzea izan daiteke.
- **Askatasuna:** Pertsonak ahalmena eta eskubidea dute gizarte baten barruan beren jarduteko modua modu arduratsuan aukeratzeko.
- **Gizartea:** Gizartea lurralde jakin batean dagoen eta bere burua auto-produzitzen duen gizabanakoen multzoa da, normalean berezko kultura nahiz gizarte-erakundeak dituen.
- **Aurrerakuntza:** Hobekuntza, gure gaiari dagokionez, aurrerakuntzarekin "teknologia" hitzari egingo diogu erreferentzia.
- **Atzerakuntza:** Gizartean eta sozialki eragiten duen atzerakada.
- **Eboluzioa:** Eboluzioa egoera batetik bestera objektu edo subjektu batean gertatzen den aldaketa da, eraldaketa progresiboko prozesu baten emaitza gisa.
- **Dependentzia:** Beste batzuen mende dagoen pertsonaren edo gauzaren egoera.
- **Determinismoa:** Doktrina filosofikoa, zeinaren arabera agerpen oro aldeztatik aurretik baitezpada determinaturik baitago gertatzen den zirkunstantzia edo baldintzen arabera, eta, beraz, gure nahimenaren egintza bakar bat ere ez baita askea, nahitaez aldeztatik ezarria baizik.

Ikerketan erabili den inkesta eredua:

https://docs.google.com/forms/d/1dym0V_ggO9X6GO0ws_1Csn2KECW2kpaHNrC7ts3Vabc/edit

ESKERRAK

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau aurrera eramaten lagundu diguten guztiei. Alde batetik, inkesta bete duten pertsona oroi eskertu nahi diogu bere partehartzea, informazio iturri aberatsa izan baita. Bestetik, gure filosofiako irakaslea eta bideoa editatzen lagundu digun laguna ere aipatu behar ditugu. Bukatzeko, lan hau azaleratzeko aukera eman digun elhuyar elkarteari ere esker mila.